LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

# 2019ko AUZO BATZARRAK

# ASAMBLEAS DE BARRIO 2019

**Auzoa** / Barrio: **Areta**
**Data** / Fecha: **2019/11/21**
**Ordua** / Hora: **18:30 – 19:45**
**Lekua** / Lugar: **Santa Ana Kluba**

---

**Bertaratutako ordezkari politikoak** / Asistentes en representación política:

- Ander Añibarro (EAJ-PNV)
- Joseba Amondo (EAJ-PNV)
- Ander Larrinaga (EAJ-PNV)
- Lamia Arcas (EH Bildu)
- Nerea González (OMNIA) – publikoarekin batera / entre el público

**Bertaratutako udaleko ordezkari teknikoak** / Asistentes en representación técnica del Ayuntamiento:

- Asier Goikouria (Obra eta Zerbitzuetako jarduneko burua / Jefe de Obras y Servicios en funciones)
- Joseba Solaun (Obretako arduraduna / Encargado de Obras)
- Almudena Fernández (Udal arkitektoa / Arquitecta municipal)
- Ane Meaza (Arkitektoa / Arquitecta)

---

**Gai-zerrenda /** Orden del día:

| | |
|---|---|
| 1. 2019-2023 Legegintzaldirako Planaren aurkezpena eta bideratu beharreko proiektu nagusiak<br>2. Parte hartzeko formulak azaltzea eta auzoko zinegotziaren figura aurkeztea<br>3. Galderak | 1. Presentación del Plan de Legislatura 2019-2023 y proyectos clave a desarrollar<br>2. Presentación de fórmulas de participación y de la figura de Concejal/a de barrio<br>3. Preguntas |

**Edukia /** Contenido:

| | |
|---|---|
| 1. Herritar batek esan du ibilgailuak abiadura handiegian igarotzen direla Vitoria-Gasteiz kalean, eta, horregatik, batzuetan arriskutsua izaten dela haurrak eskolara oinez | 1. Vecina comenta que los vehículos pasan a una velocidad demasiado alta en la calle Vitoria, lo que hace que en ocasiones sea peligroso llevar a los niños y niñas andando al |

| | |
|---|---|
| eramatea, eta oinezkoentzako gune bihurtzeko eskatu du, eskolara sartzeko ohiko ordutegian behintzat. Radar bat jartzeko edo Udaltzaingoa bertan egoteko aukera ere planteatu du, trafikoa kontrola dezan. | colegio, y solicita que se convierta en zona peatonal, al menos durante el horario habitual de entrada al colegio. También plantea la posibilidad de instalar un radar o desplazar a la Policía para que controle el tráfico. |
| • Erantzun zaio eremu hori ezin dela oinezkoentzat izan, udalerriko irteera bakarra delako. Gainera, dagoeneko badaude zebrabideak, eta horietako batzuk semaforoz araututa daude. Hala ere, Mugikortasun Mahaia aktibatuko da, eta bertan jorratuko dira gai horiek. | • Se le contesta que dicha zona no puede ser peatonal, ya que es la única salida del municipio. Además, ya existen pasos de cebra, algunos de ellos regulados con semáforo. No obstante, se activará la Mesa de movilidad, donde se tratarán estos asuntos. |
| 2. Herritar batek haurrak eskolara autoz eramateko zailtasunei buruz hitz egin du; izan ere, uste du ezin dela ikastetxeko aparkalekuan aparkatu, irakasleentzat gordeta baitago. | 2. Vecina comenta las dificultades para llevar a los niños y niñas al colegio en coche, ya que cree que no se permite estacionar en el parking del colegio, que está reservado al profesorado. |
| • Beste bizilagun batek esan dio aparkaleku osoa ez dagoela ikastetxeko irakasleentzat gordeta, estalitako zatia bakarrik, eta Udalak baieztatu du hala dela, gainerakoa aparkaleku askekoa dela. | • Otra vecina le comenta que el parking entero no está reservado al profesorado del colegio, únicamente la parte cubierta, confirmando el Ayuntamiento que así es, el resto es de libre aparcamiento. |
| 3. Herritar batek Bizkaibuseko geralekuaren kokalekua aldatzeko eskatu du, eta elizaren gunera eramatea. Komentario horrek eztabaida sortzen du bizilagunen artean, batzuek uste baitute ez dela erabaki egokia, eta egokiagoa dela markesina bat jartzea gaur egun dagoen geralekuan. | 3. Vecina solicita un cambio de ubicación de la parada de Bizkaibus, pidiendo que se traslade a la zona de la iglesia, donde ya está hecha la parada. Este comentario genera debate entre vecinos y vecinas, ya que parte de ellos consideran que no es la decisión adecuada, siendo más adecuado colocar una marquesina donde actualmente para el autobús. |
| • Udalak adierazi du gai hori aurreko batzarretan atera zela eta Bizkaibuseko arduradunekin bilerak egin direla, eta denak bat datoz onena elizaren ondoan gelditzea dela. Hala ere, Bizkaibusek agintzen dion lekuan geldi daiteke, eta, beraz, adostu egin beharko da. Bestalde, aipatu da zaila dela egungo geralekuan markesina bat jartzea, espaloi osoa inbadituko bailuke. Era berean, bi puntuen arteko distantzia 100 metrotik beherakoa dela gogorarazi dute. | • Desde el Ayuntamiento se cita que este asunto ya salió en Asambleas anteriores y que se han mantenido reuniones con responsables de Bizkaibus, y todos coinciden en que lo mejor es parar al lado de la iglesia. No obstante, Bizkaibus puede parar en el lugar en el que se le indique, por lo que habrá que consensuarlo. Por otro lado, se comenta que es complicado instalar una marquesina en el punto de parada actual, ya que invadiría toda la acera. Asimismo, se recuerda que la distancia entre ambos puntos es menor a 100 metros. |
| 4. Bizilagun batek Aretako pilotalekuko aparkaleku lerroak margotzea eskatzen du, aurretik ere hala eskatu duela argudiatuz. | 4. Vecino solicita pintar las líneas de aparcamiento del frontón de Areta, alegando que ya lo ha solicitado anteriormente. |
| • Aurten zintarria aldatzen lan egin dela erantzun da, margotu ahal izateko; zeregin hori atzeratu egin da, beste lehentasun batzuei erantzun behar izan zaielako, baina | • Se contesta que ya se ha trabajado este año en modificar el bordillo para poder proceder al pintado; esta tarea se ha retrasado porque ha habido que ir dando |

| | |
|---|---|
| egin egingo da.<br><br>5. Herritar batek adierazi du Landetan, lokalen parean, hainbat auto istripu izan direla; horregatik, eustorma indartzea eta errepidearen mailaraino eramatea proposatu du, baranda bat jartzeko.<br>• Udalak gai hau aztertzeko eta baloratzeko konpromisoa hartzen du.<br><br>6. Bizilagun batek adierazi du Landeta auzoan etxebizitzak mendi-eremu batetik gertu daudela, eta horrek arriskua dakarrela sutea gertatuz gero. Ez daki lursaila norena den.<br>• Lursailaren titulartasuna berrikusiko da, eta emaitzaren arabera, jardun egingo da.<br>7. Auzokide bat kexu da Vitoria-Gasteizko 14 zenbakiko zuhaitzen altuerarekin, auzotarren bistak ezabatzen baitituzte.<br>• Udalak erantzun du zuhaitz horiek inausten diren unea berrikusiko dela.<br>8. Auzokide batek esan du puntu beltz bat dagoela geltokitik errepide orokorrerako jaitsieran, eta ingurua hobetu ondoren puntu ilun bat geratu dela, oso ikuspen gutxikoa. Ez daki udalaren edo ADIF-ren titulartasuna den.<br>• Espazioaren titulartasuna berrikusiko da eta, emaitzaren arabera, jardun egingo da.<br><br>9. Herritar batek Chopera inguruan banku bat jartzeko eskatu du, pasealekuan eseri ahal izateko.<br>• Udalak esan du instalatu egingo dela.<br><br><br>10. Auzokide batek esan du Areta 17-21-ko edukiontziak apurtuta daudela eta ez dutela tapa ondo altxatzen; beraz, zaborra erori egiten da. Horrez gain, hondakin organikoen edukiontzia noiz jarriko den galdetu du.<br>• Aiarako Kuadrilla, gaian eskuduna, edukiontziak berritzeko lanean ari dela erantzun da; beraz, oraingoak ordeztuko dira eta ondoren organikoak jarriko dira.<br>11. Bizilagun batek esan du Gallarrekon, Nerbion ibaiarekin muga egiten duten uztarrien garbiketarekin, ingurua arratoiz bete dela eta usain txarra dagoela. | respuesta a otras prioridades, pero se realizará.<br>5. Vecino comenta que en Landeta, enfrente de los locales, ha habido varios accidentes de coche, por lo que propone reforzar el muro de contención y llevarlo hasta el nivel de la carretera para colocar una barandilla.<br>• El Ayuntamiento se compromete a analizar y valorar este tema.<br>6. Vecino comenta que en el barrio de Landeta las viviendas están cerca de una zona de monte, con el riesgo que ello conlleva en caso de incendio. Se desconoce a quién pertenece el terreno.<br>• Se revisará la titularidad del terreno y, en función del resultado, se actuará.<br>7. Vecina se queja de la altura de los árboles en Vitoria, 14, que eliminan vistas a los vecinos y vecinas.<br>• Se contesta desde el Ayuntamiento que se revisará el momento en el que toca la poda de esos árboles.<br>8. Vecina comenta que existe un punto negro en la bajada desde la estación hacia la carretera general, que tras la mejora del entorno se ha quedado un punto oscuro con muy baja visibilidad. Se desconoce si es titularidad municipal o de ADIF.<br>• Se revisará la titularidad del espacio y, en función del resultado, se actuará.<br>9. Vecino solicita la instalación de un banco en la zona de la Chopera hacia Anuncibai, para poder sentarse durante el paseo.<br>• Desde el Ayuntamiento se dice que se instalará.<br>10. Vecina comenta que los contenedores de Areta 17-21 están rotos y no levantan bien la tapa, por lo que la basura se cae. Además, pregunta por cuándo se colocará el contenedor de residuos orgánicos.<br>• Se contesta que la Cuadrilla de Aiara, competente en la materia, está trabajando en la renovación de los contenedores, por lo que se sustituirán los actuales y posteriormente se colocarán los orgánicos.<br>11. Vecino comenta que en Gallarreko, con la limpieza de rastrojos lindantes con el río Nerbion, la zona se ha llenado de ratas y existe mal olor. |

| | |
|---|---|
| • Aipatu da eremu hori mantentzeko eta hobetzeko kompetentziak URArenak (Eusko Jaurlaritza) direla, eta etengabe eskatzen diegu ibaiaren ibilguak egoera onean izan ditzatela. | • Se comenta que las ompetencias para mantener y mejorar esa zona son de URA (Gobierno Vasco), a quienes constantemente instamos a que tenga los cauces del río en buen estado. |
| 12. Herritar batek dio Santa Anako gunean bi paperontzi baino ez daudela, eta paperontzi gehiago edo zaborrak uzteko edukiontzi handi bat jartzeko eskatu du. Gainera, paperontziak irauli egiten direla dio. | 12. Vecino apunta que en la zona de recreo de Santa Ana únicamente existen dos papeleras, solicitando que se instalen más papeleras o un contenedor grande para depositar basura. Además, comenta que las papeleras se vuelcan. |
| • Udalak gune horretarako irtenbide bat bilatzeko lan egingo du. | • Se trabajará desde el Ayuntamiento en buscar una solución para este espacio. |
| 13. Bizilagun batek Santa Ana baserriaren aurri-egoera nabarmentzen du, hesirik ez dagoela esanez eta horrek arriskutsu egiten du gunea, zerbait egitea beharrezkoa izanik. Gainera, toki horretan arratoien aurkako tratamendua egiteko eskatu zion Udalari. | 13. Vecino destaca el estado ruinoso del caserío de Santa Ana, diciendo que no se encuentra vallado y eso lo hace peligroso, siendo necesario hacer algo. Además, solicitó al Ayuntamiento que realizara un tratamiento contra las ratas en ese lugar. |
| • Udalak gai hau aztertuko du behar diren ekintzak egiteko. | • Desde el Ayuntamiento se mirará este tema para tomar las acciones que sea necesario. |
| 14. Auzokide batek esan du Aretako haur-parkean 3 gune daudela uda aurretik hesituta, konponketak egiteko zain. Galdetu du ea noiz egongo diren prest. | 14. Vecina apunta a que en el parque infantil de Areta existen 3 zonas que se encuentran valladas desde antes de verano, a la espera de que se realicen reparaciones. Pregunta cuándo estarán listas. |
| • Udalak erantzun du lehenbailehen konponduko dela, parkea guztiz erabilgarri egon dadin. | • Desde el Ayuntamiento se contesta que se trabajará en solucionarlo cuanto antes para que el parque esté totalmente disponible. |
| 15. Auzokide batek galdetu du zergatik utzi zioten Aretan Sorgin Zapatuen jarduerak ospatzeari. | 15. Vecino pregunta por qué se dejaron de celebrar en Areta las actividades de Sorgin Zapatuak. |
| • Udalak dio pilotu bat egin zela Sorgin Zapatuak auzoetara eramateko, baina ondorioztatu zela, oro har, ez zuela arrakasta handirik izan, eta jende kopurua oso txikia izan zela. Auzotarren batek esan du Aretan jende asko bildu zela, eta, beraz, Udalak esan du auzoren batean berreskuratzeko aukera aztertuko dela. | • El Ayuntamiento cuenta que se realizó un piloto para llevar Sorgin Zapatuak a los barrios, pero que se concluyó que, a nivel general, no tuvo mucho éxito, y la afluencia de personas fue muy baja. Algún vecino comenta que en Areta sí tuvo mucha afluencia, por lo que desde el Ayuntamiento se dice que se estudiará la posibilidad de recuperarlo en alguno de los barrios. |
| 16. Aretako fatxada ezberdinetan dauden pintadak kentzeari begira, muralismo proiektu bat egitea proposatu da. | 16. Vecino propone que, de cara a eliminar las pintadas que existen en diferentes fachadas en Areta, se realice un proyecto de muralismo. |
| • Udalak aurreratu du udalerri osorako ildo horretako proiektu bat zehazten ari dela. Hala ere, agerian geratu da ez dela gauza bera espazio publikoetako fatxadetan edo pribatuetan esku hartzea, jabearen baimena | • Desde el Ayuntamiento se avanza que se está perfilando un proyecto en dicho sentido para todo el municipio. No obstante, se pone de manifiesto que no es lo mismo |

| | |
|---|---|
| behar baita. | intervenir sobre fachadas de espacios públicos que sobre privados, donde se necesita el consentimiento de la persona propietaria. |
| 17. Auzokide batek dio estolda baten usain txarra dagoela Bidebarrietan.<br>• Udalak erantzun du usain hori aztertu zela duela urte batzuk, eta arazoa konpontzea zaila dela. | 17. Vecino cuenta que existe mal olor derivado de una alcantarilla en Bidebarrieta.<br>• El Ayuntamiento responde que se estuvo analizando dicho olor ya hace años, y que la solución al problema es complicada. |
| 18. Galdetu egin da zergatik mugitu den Batzarra Kultura Etxetik Santa Ana Zentrora.<br>• Udalak erantzun du gaizki-ulertu baten ondorioz gertatu dela, eta barkamena eskatu du. Datorren urtean Kultura Etxera itzuliko dela aurreratu du, auzotarrentzat aukera hobea bada. | 18. Vecino pregunta la razón por la que la Asamblea se ha trasladado de la Kultura Etxea al Centro Santa Ana.<br>• El Ayuntamiento contesta que se ha debido a un malentendido, y pide disculpas. Avanza que el año que viene volverá a la Kultura Etxea, si es una mejor opción para los vecinos y vecinas. |
| 19. Vitoria-Gasteiz eta Areta kaleen arteko bidegurutzean dagoen aparkalekuan baranda aldatu eta topeak jarri dituzte, ibilgailuek haren kontra jo ez dezaten. Horrez gain, aparkalekuak bermargotu dituzte. Hala ere, horrekin aparkalekua are gehiago zailtzen dela dio auzokide batek, guneak ez baitaude ondo zehaztuta, haren ustez.<br>• Udalak erantzun du aparkalekuak espraiarekin margotu direla, eta ez pinturarekin, behin-behineko izaera dutelako. Aztertu egingo da benetan problematikoa den, behin betiko margotu aurretik. | 19. Vecino apunta que en el espacio de aparcamiento en el cruce entre las calles Vitoria y Areta, se ha sustituido la barandilla y se han colocado topes para que los vehículos no peguen contra ella. Además, se han repintado los aparcamientos. No obstante, apunta que con ello se dificulta aún más el aparcamiento, ya que no están bien definidos los espacios, a su juicio.<br>• Se contesta desde el Ayuntamiento que los aparcamientos se han pintado con spray en lugar de con pintura porque tienen carácter provisional, se va a analizar si realmente es problemático antes de pintarlos definitivamente. |
| 20. Herritar batek galdetu du ea inausiko diren Vitoria-Gasteiz eta Areta kaleen arteko bidegurutzeko zuhaitzak.<br>• Udalak erantzun du zuhaitz horiek bi urtez behin inausteko plan baten barruan daudela eta joan den astean inausketa agindu zela; beraz, berehala egingo da. | 20. Vecino pregunta si se van a podar los árboles del cruce entre las calles Vitoria y Areta.<br>• Se contesta desde el Ayuntamiento que esos árboles están dentro de un plan bienal de poda y que la semana pasada ya se dio orden de podar, por lo que es inminente que se haga. |
| 21. Auzotar batek azaldu du Atxetako igoerak hainbat zulo dituela, eta horiek konpontzeko eskatu du.<br>• Erantzun da Udalak ezagutzen dituela zulo horiek, eta udalerriko beste leku batzuetan beste zulo batzuekin batera noiz estaliko zain daudela. Horrez gain, Udala udalerrirako asfaltatze plan orokor bat lantzen ari dela kontatzen da. | 21. Vecina expone que la subida a Atxeta tiene varios baches que solicita se arreglen.<br>• Se contesta que el Ayuntamiento es conocedor de dichos baches y se está a la espera de taparlos junto con otros baches en otros puntos del municipio. Además, se cuenta que el Ayuntamiento está trabajando en un plan de asfaltados general para el municipio. |
| 22. Auzokide batek dioenez, kiosko zaharraren inguruan, bi semaforoen artean, | 22. Vecina cuenta que en la zona del antiguo quiosco, entre los dos semáforos, hay |

| | |
|---|---|
| aldapa handiegia dago, eta gurpildun aulkian dauden pertsonentzat arriskutsu bihurtzen da, abiadura handiegia hartzen baita. Adierazi du aurreko batzarrean ere adierazi zuela hori, eta ez zaiola irtenbiderik eman.<br>• Udalak erantzun du gaia aztertuko dela.<br>23. Bizilagun batek Vitoria-Gasteiz kaleko edukiontziak lekuz mugitzeko eskatu du, Aplika parean, ez baitute zebrabidea ikusten uzten autoz bazoaz, eta arriskutsua da oinezkoentzat.<br>• Gai hori Aiarako Kuadrillara eramango da, kokalekua alda dezaten.<br><br>24. Bizilagun batek galdetu du ea noiz eta nola bota behar diren tresna handiak edukiontzietan, horiek kentzeko.<br>• Udalak jarraitu beharreko prozesua azaldu du, abisatzeko deitu beharreko telefonoa emanez.<br><br>25. Bizilagun bat kexatu da espaloietan dauden txakur-gorotzak direla eta, bereziki ikastetxearen inguruan. Egintza horiek zigortzen dituen araudirik ba ote dagoen galdetu du. Beste bizilagun batzuek gorotzak jaso gabe uzteko debekua adierazteko eskatu dute, seinaleen bidez.<br>• Udalak azaldu duenez, gai hau arautzen duen bide-garbiketarako ordenantza bat dago, eta hainbat tokitan seinaleak daude, baina jartzen den bakoitzean, seinaleak botatzen dira. Jarrera zibikoa izateko beharra berretsi da.<br><br><br>26. Bizilagun batek galdetu du ea Udalak zerbait egingo duen Kultura Etxeari buruz. Auzokide batek, Kultura Etxeko ordezkari gisa, erantzun du dagoeneko ari direla gauzak egiten, baina epeekin pazientzia izan behar dela.<br>• Erantzun da gaia lantzen ari dela, baina duela 40 urtetik datorren gaia dela, eta titulartasunak eta egin beharreko urratsak aztertu behar direla. Kultura Etxetik auzoko zinegotziarekin bilera bat egiteko eskatzen da.<br><br>27. Auzokide batek kiosko zaharra egoera txarrean dagoela adierazten du, arriskutsuak | excesiva pendiente, y se convierte en peligroso para personas en silla de ruedas, ya que se coge demasiada velocidad. Apunta a que ya lo expresó en la Asamblea anterior y que no se ha dado solución.<br>• Se contesta desde el Ayuntamiento que se analizará este tema.<br>23. Vecina solicita que se muevan de sitio los contenedores de la calle Vitoria, a la altura de Aplika, ya que no dejan ver el paso de cebra si vas en coche, y es peligroso para peatones.<br>• Este asunto se trasladará a la Cuadrilla de Aiara para que procedan al cambio de ubicación.<br>24. Vecina pregunta cuándo y cómo se deben depositar grandes enseres en los contenedores para que se proceda a su retirada.<br>• El Ayuntamiento explica el proceso a seguir, dando el teléfono al que hay que llamar para avisar.<br>25. Vecina se queja de los excrementos de perro que existen en las aceras a lo largo del barrio, pero especialmente en la zona del colegio. Pregunta si existe una normativa que sancione estos actos. Otros vecinos solicitan que se señalice la prohibición de dejar los excrementos sin recoger y piden mayor civismo.<br>• Desde el Ayuntamiento se explica que existe una Ordenanza de limpieza viaria que regula este tema, y que existe señalización en diferentes puntos, aunque cada vez que se pone, apenas dura puesta la señal una semana. Se reitera la necesidad de tener una actitud cívica.<br>26. Vecino pregunta si desde el Ayuntamiento se va a hacer algo respecto a la Kultura Etxea. Una vecina, representante de la Kultura Etxea, contesta que ya se están haciendo cosas, pero que hay que tener paciencia con los plazos.<br>• Se contesta que se está trabajando en el tema, pero que es un asunto que viene de hace 40 años y hay que analizar titularidades y pasos a seguir. Desde la Kultura Etxea se pasan los datos de contacto al Concejal de barrio para mantener una reunión.<br>27. Vecina apunta el mal estado del antiguo quiosco, con hierros viejos que |

| | |
|---|---|
| izan daitezkeen burdin zaharrekin. Ez daki kioskoaren titulartasuna zein den eta, beraz, nork duen hura baldintza onetan mantentzeko ardura.<br>• Udalak esan du kioskoaren kontzesioaren egoera aztertuko dela horri buruzko erabakiak hartzeko.<br>28. Bizilagun batek dioenez, Iturralde kalean, egindako obren ondoren jarri beharreko bankuak iritsi behar zuten dagoeneko, baina ez daude oraindik. Gainera, dagoeneko altxatu dira baldosak batzuk.<br>• Udalak ikusiko du zer gertatu den arazoa konpontzeko.<br>29. Herritar batek Santa Anako barbakoen gunean argiztapen handiagoa jartzeko eskatu du, bestela, ezin baita bertan egon iluntzean. Lehen bi foku zeuden eta orain bakarra dagoela dio.<br>• Udalak gune horretako argiztapena nola hobetu aztertuko du.<br>30. Bizilagun batek kontatzen du, urtez urte, futbito zelaiko zorua aldatzeko eskatzen dela. Berriro eskatu dute.<br>• Udalak hari begiratzeko konpromisoa hartzen du, erabaki bat hartzeko.<br>31. Bizilagun batek eskatu du ikastetxea arratsaldeetan ireki ahal izatea, haurrek jolasgune gisa erabili ahal izan dezaten. Hori egin den beste leku batzuk ezagutzen dituela dio.<br>• Udalak esan du gai hori Aretako Eskola Kontseiluan landu zela, gurasoek eskatu baitzuten. Esan da ez dela ikastetxea irekitzea bezain gai erraza, beste elementu garrantzitsu batzuk kontuan hartu behar baitira (aseguruak, mantentze-lanak, etab.). Hala ere, auzoaren behar horri erantzuna nola eman begiratzen ari dira.<br><br>32. Bizilagun batek kontatzen du Iturraldeko igoeran belarra moztu dutela eta ez dituztela sastrakak kendu. Igoera osoa belarrekin dagoela azaldu du.<br>• Udalak erantzun du ez direla Udalaren lanak izan, jabetza pribatuko gunea baita.<br><br>33. Auzokide batek esan du Vitoria-Gasteiz kalean kamioi askok ez dietela kasurik egiten gehieneko altuerako seinaleei eta handik sartzen direla, eta zubira iritsi eta | pueden ser peligrosos. Se desconoce la titularidad del quiosco y, por tanto, quien es responsable de mantenerlo en buenas condiciones.<br>• Desde el Ayuntamiento se dice que se analizará el estado de la concesión del quiosco para tomar decisiones al respecto.<br>28. Vecino cuenta que, en la calle Iturralde, deberían haber llegado ya los bancos a instalar tras las obras realizadas, pero que no están aún. Además, apunta a que existen baldosas que ya se han levantado.<br>• Desde el Ayuntamiento se mirará qué ha ocurrido para solucionarlo.<br>29. Vecino solicita que se ponga mayor iluminación en la zona de barbacoas de Santa Ana, ya que, si no, no se puede estar allí cuando anochece. Antes había dos focos y ahora comenta que solo hay uno.<br>• Desde el Ayuntamiento se mirará cómo mejorar la iluminación en dicha zona.<br>30. Vecino cuenta que, año tras año, se pide que se cambie el suelo en el campo de futbito. Vuelven a solicitarlo.<br>• El Ayuntamiento se compromete a mirarlo para tomar una decisión.<br>31. Vecino solicita que el colegio pueda abrirse por las tardes para que los niños y niñas puedan utilizarlo como zona de juego. Cuenta que conoce otros sitios donde se ha realizado esto.<br>• Desde el Ayuntamiento se dice que este fue un tema que se trabajó en el Consejo Escolar de Areta, ya que lo solicitaron los padres. Se apunta a que no es un tema tan sencillo como abrir el colegio, ya que hay que considerar otros elementos importantes (seguros, mantenimiento, etc.). No obstante, se está mirando cómo dar respuesta a esta necesidad del barrio.<br>32. Vecina cuenta que se ha cortado la hierba en la subida a Iturralde y no se han retirado los matojos. Expone que toda la subida está con hierbas.<br>• Desde el Ayuntamiento se responde que no han sido labores del Ayuntamiento, que es una zona de propiedad privada.<br>33. Vecina comenta que en la calle Vitoria-Gasteiz, hay muchos camiones que no hacen caso a las señales de altura máxima y se meten por allí, y cuando llegan al puente y |

| | |
|---|---|
| kabitzen ez direnean buelta eman behar izaten dutela. Horrez gain, kale horretako 13. zenbakiaren parean dauden garajeak kamioiei buelta emateko lekurik onena ez direla aipatu dute, tona kopuru altua baitute.<br>• Udalak esan du nahikoa seinaleztatuta dagoela, GPS sistemen arazoa dela batez ere, ibilbidea hortik igarotzen dela adierazten baitute. Bizkaiko Foru Aldundiarekin lan egin da Orozkotik gehienezko altuera adieraz dezan. | no caben se ven obligados a dar la vuelta. Además, se apunta a que los garajes que están a la altura del número 13 de dicha calle no es el mejor lugar para dar la vuelta los camiones, ya que tienen un alto tonelaje.<br>• Desde el Ayuntamiento se dice que está suficientemente señalizado, que es problema sobre todo de los sistemas GPS, que indican que la ruta pasa por ahí. Se ha trabajado con la Diputación Foral de Bizkaia para que señalice la altura máxima desde Orozko. |

---

Alkate-udalburuak bukatutzat jo du batzarra 19:45ak direnean. / *Cuando son las 19:45, el alcalde-presidente da por finalizada la asamblea.*